





## **Elektronika eta Mikroelektronika**

# **HIZTEGIA**



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren  
*Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:

**<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>**

Argitaraldia: I.a, 2016ko xxxx

Ale-kopurua: 1.500 ale

© argitaraldi honena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: <http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm>

Azala: Concetta Probanza

Inprimaketa: XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

ISBN: XXXXXXXXXXXXXXXX

Lege gordailua: XXXXXXXXXX

## HITZAURREA

**E**uskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak onartutako hiztegia duzu hau. Hortaz, Batzordeak gomendatu egiten du hiztegi honetako terminologia erabiltzea.

Izan ere, Terminologia Batzordeari dagokio, besteak beste, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egitea, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea, termino lehiakideen arteko lehentasunak jartzea ponderazio-markak finkatuz, eta terminoen erabilera onestea eta gomendatzea. Terminologia Batzordeak urteko jarduketa-planetan jasotzen ditu horiek guztiak.

Hiztegi hau, Terminologia Batzordeak onartutako gainerako hiztegiak bezala, EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan ([www.euskara.euskadi.eus/euskalterm](http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm)) dago integratuta.

EUSKALTERM erabilera publikoko bankua da, Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina. Banku hori metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, betiere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen jarraituz. Beraz, EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa

etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPeekin lankidetzan, euskal terminologiaren normalizazioari eta zabalkundeari ekin eta eusteko.

Garaiazen arabera, gizartea aldatzen den neurrian, hizkuntzak ere aldatzen dira, bizirik badaude, behar berriei erantzuteko. Ondorioz, hizkuntza baten modernizatzearen eta eguneratzearen prozesua ez da inoiz amaitzen. Horregatik, hizkuntzaren altxor lexikoa eta terminologikoa etengabe elikatu behar dira, hizkuntza bera normalizatzeko, batetik, eta erabiltzaileen premiei erantzuteko, bestetik.

Honakoa, hiztegiak jorratzen duen eremuko erabiltzaileen oinarritzko premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, baita gure hizkuntzaren normalizazioaren eta eguneratzearen bidean urrats garrantzitsua izatea ere. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu, euskaldunok hizkuntza gero eta aberatsagoa izan dezagun.

*Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 17a*

**PATXI BAZTARRIKA GALPARSORO**  
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

## HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa ([www.euskara.euskadi.eus/euskalterm](http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm)) eguneratzeko eta elikatzeke entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuaren barruan. Kontratua HPSk eta IVAPEk finantzatu dute, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenaren bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak<sup>1</sup> finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehenasunen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa. Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia-batzorde atal bereziak euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da. Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia**.

---

1 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa.

### **Hiztegien erabilitako ponderazio-markak:**

(4) Termino normalizatua/gomendatua

(3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegien erabilitako laburtzapenak:

**eu** euskara

**es** español

**fr** français

**en** English

**Sin.** sinonimoa

**Ik.** ikus



# NORMALIZAZIOA

## BATZORDE TEKNIKOA

**Olatz Ukar** (Deustuko Unibertsitatea)

**Jon Legarda** (Deustuko Unibertsitatea)

**Jokin Gorozika** (EHU)

**Federico Recart** (EHU)

**Iker Etxebeste** (UZEI)

Koordinatzailea: **Jone Agirregoikoa**

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

## TERMINOLOGIA BATZORDEA

**Patxi Baztarrrika Galparsoro**, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzorde-ataleko lehendakaria

**Eneko Oregi Goñi**, IVAPeke zuzendarioordea, batzorde-ataleko lehendakarioordea

**Jorge Giménez Bech**, EABko eta batzorde-ataleko idazkaria

**Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra**, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria

**Maite Imaz Leunda**, IVAPeke ordezkaria

**Andoni Sagarna Izagirre**, Euskaltzaindiaren ordezkaria

**Iker Etxebeste Zubizarreta**, Unibertsitate Zerbitzueterako Euskal Ikastetxeko (UZEI) ordezkaria

**Xabier Alberdi Larizgoitia**, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria

**Ibon Olaziregi Salaberria**, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria

**Mertxe Olaizola Maiz**, aditua

**Joseba Erkizia Itoitz**, aditua

**Asier Larrinaga Larrazabal**, aditua

**Miel Loinaz Beristain**, aditua

**Alberto Atxabal Rada**, aditua

**Alfontso Mujika Etxeberria**, aditua

**UZEI-REN LANKIDE IZAN DIREN ADITUAK**

**Josu Berra.** IKASLAN

**Joxi Gurrutxaga.** IKASLAN

**Alazne Rementeria.** Makina Erremintaren Institutua (IMH)

# EREMU-ZUHAITZA



## 1 Termino orokorrak

## 2 Elektronika analogikoa

- 2.1 Osagai pasiboak
- 2.2 Osagai aktiboak
- 2.3 Erregulazioa eta transduktoreak
- 2.4 Zirkuituak
- 2.5 Bestelako osagai eta tresnak

## 3 Elektronika digitala

# AURKIBIDEA



## **Bokabularioa sailka**

1. TERMINO OROKORRAK . . . . .	14
2. ELEKTRONIKA ANALOGIKOA . . . . .	15
2.1. Osagai pasiboak . . . . .	15
2.2. Osagai aktiboak . . . . .	20
2.3. Erregulazioa eta transduktoreak . . . . .	28
2.4. Zirkuituak . . . . .	31
2.5. Bestelako osagai eta tresnak . . . . .	39
3. ELEKTRONIKA DIGITALA . . . . .	42
<b>Euskarazko aurkibidea . . . . .</b>	<b>55</b>
<b>Gaztelaniazko aurkibidea . . . . .</b>	<b>63</b>
<b>Frantsesezko aurkibidea . . . . .</b>	<b>71</b>
<b>Ingelesezko aurkibidea . . . . .</b>	<b>79</b>
<b>Erreferentzia bibliografikoak. . . . .</b>	<b>87</b>

# **BOKABULARIOA SAILKA**

## I. TERMINO OROKORRAK

I

**elektronika (4)**

Elektroien fluxuan gertatzen diren fenomenoak aztertzen eta erabiltzen dituen jakintzagaia; jakintzagai horretan oinarritutako teknologia.

**es** electrónica**fr** électronique**en** electronics

2

**elektronika analogiko (4)**

Seinale analogikoekin (digitalizatu gabekoekin) funtzionatzen duen elektronikaren atala. Seinale analogikoak denboran eta neurrian jarraituki alda daitezke, eta edozein balio har dezakete; oro har, ez daude laginduta edo mailatan sailkatuta.

**es** electrónica analógica**fr** électronique analogique**en** analog electronics; analogue electronics

3

**elektronika digital (4)**

Seinale digitalekin funtzionatzen duen elektronikaren atala. Seinale digital bat seinale fisiko baten adierazpen diskretizatua eta kuantifikatua da; hau da, seinale bat digitalizatzeko, une jakin batzuetan hartzen dituen balioak lagindu (diskretizatu) eta mailakatu (maila kopuru finitu bat erabiliz kuantifikatu) egiten dira.

**es** electrónica digital**fr** électronique numérique**en** digital electronics

4

**elektronika integratu (4)**

Zirkuitu integratuak lantzen dituen elektronikaren atala. Bi osagai elektroniko edo gehiago zirkuitu

bakarrean elkartu eta kapsula bakarrean aurkeztea lantzen du.

**es** electrónica integrada**fr** électronique intégrée**en** integrated electronics

5

**mikroelektronika (4)**

Mikrometro-doitasunarekin egindako oinarritzko osagaiekin funtzionatzen duen elektronikaren atala.

**es** microelectrónica**fr** microélectronique**en** microelectronics

6

**nanoelektronika (4)**

Nanometro-doitasunarekin egindako oinarritzko osagaiekin funtzionatzen duen elektronikaren atala.

**es** nanoelectrónica**fr** nanoélectronique**en** nanoelectronics

7

**optoelektronika (4)**

Seinale elektrikoak argi-seinale eta, alderantziz, argi-seinaleak seinale elektriko bihurtzen dituzten teknologia eta gailuez arduratzen den elektronikaren atala.

**es** optoelectrónica**fr** optoélectronique**en** optoelectronics

8

**potentzia-elektronika (4)**

Potentzia elektrikoa kontrolatzeko eta transformatzeko aplikazio teknikoek arduratzen den elektronikaren atala.

**es** electrónica de potencia**fr** électronique de puissance**en** power electronics

## 2. ELEKTRONIKA ANALOGIKOA

### 2.1. Osagai pasiboak

#### baristore

Ik. tentsioaren araberako erresistentzia

9

#### blokeo-kondentsadore (4)

Korrante alternoa pasatzen uzten duen bitartean korrante zuzena pasatzea eragozten duen kondentsadorea.

**es** condensador de bloqueo;  
condensador de detención

**fr** condensateur de blocage

**en** blocking capacitor; stopping capacitor; coupling capacitor

10

#### disko-formako

#### kondentsadore (4)

**es** condensador de disco

**fr** condensateur disque

**en** disc capacitor

11

#### egoera solidoko errele (4)

**es** relé de estado sólido

**fr** relais statique

**en** solid-state relay

12

#### elektrodo (4)

**es** electrodo

**fr** électrode

**en** electrode

13

#### errele (4)

Elektrikoki edo elektromagnetikoki eragindako konmutadorea, kontrol-zirkuitu batek beste bat eten eta/edo ixteko erabiltzen dena.

**es** relé

**fr** relais

**en** relay

14

#### errele elektromagnetiko (4)

Elektroiman batek sortutako eremu magnetikoarekin funtzionatzen duen errelea. Zirkuituak ixten edo irekitzen dituzten kontaktu higikor batzuetan eragiten du eremu magnetiko horrek.

**es** relé electromagnético

**fr** relais électromagnétique

**en** electromagnetic relay

15

#### erreostato (4)

**es** reóstato

**fr** rhéostat

**en** rheostat

#### erresistentzia

Ik. erresistore

16

#### erresistentzia finko (4)

**es** resistencia fija

**fr** résisteur fixe

**en** fixed resistor

17

#### erresistentzia harilkatu (4)

**es** resistencia bobinada

**fr** résistance bobinée

**en** wire-wound resistor

18

#### erresistentzia-sare (4)

**es** red de resistencias

**fr** réseau de résistances

**en** resistor network

19

**erresistore (4)**

Sin. erresistentzia (4)

Zirkuitu bateko bi punturen artean erresistentzia elektriko jakin bat sortzeko erabiltzen den osagaia.

es resistencia

fr résistance

en resistor

20

**etengailu (4)**

es interruptor

fr interrupteur

en power switch; switch

21

**etengailu diferentzial (4)**

es interruptor diferencial

fr disjoncteur de fuite à la terre;

interrupteur différentiel

en ground fault circuit-breaker

22

**etengailu magnetotermiko (4)**

es interruptor magnetotérmico

fr disjoncteur magnéto-thermique

en thermal magnetic circuit breaker

23

**fotorresistentzia (4)**

Sin. LDR erresistentzia (4)

Argiaren intentsitatearen araberako erresistentzia duen osagaia.

es fotorresistencia; resistencia LDR

fr photorésistance

en light dependant resistor;

photoresistor; LDR

24

**fusible (4)**

Zirkuitu elektriko batean tartekatzen den babes-elementua. Gainkargaren bat edo zirkuitulaburren bat gertatzen denean, zirkuitua ireki, eta korrontea eteten du.

es fusible

fr fusible

en fuse

25

**geruzako kondentsadore (4)**

es condensador de película

fr condensateur à film

en film capacitor

26

**hodi-formako**

**kondentsadore (4)**

es condensador tubular

fr condensateur tubulaire

en tubular capacitor

27

**ikatz-geruzako**

**erresistentzia (4)**

es resistencia de película de carbón; resistencia pirolítica

fr résistance à couche de carbone

en carbon-film resistor

28

**induktantzia (4)**

Tentsioaren eta denborarekiko korrante-aldaketaren arteko erlazioa finkatzen duen osagai elektronikoa.

es inductancia

fr inductance

en inductance



29

**indukzio-haril** (4)

Ardatz baten inguruan hari eroalezko hainbat kiribil ezarri egiten den induktantzia. Kiribilak zeharkatzen dituen korronte elektrikoak eremu magnetiko bat eratzen du.

**es** bobina de inducción**fr** bobine d'induction**en** induction coil

30

**iragazki-kondentsadore** (4)**es** condensador de filtro**fr** condensateur de filtrage**en** filter capacitor

31

**kapazitate aldagarriko kondentsadore** (4)

Kapazitatea alda dakioken kondentsadorea.

**es** condensador variable**fr** condensateur variable**en** variable capacitor

32

**kapazitate doigarriko kondentsadore** (4)

Kapazitatea doi dakioken kondentsadorea.

**es** condensador ajustable**fr** condensateur ajustable**en** trimming capacitor

33

**kommutazio-kondentsadore** (4)**es** condensador de conmutación**fr** condensateur de commutation**en** commutating capacitor

34

**kondentsadore** (4)

Energia era elektrostatikoan gordetzen duen gailua. Haren barruan metatzen den karga eta terminalen arteko tentsio elektrikoak proportzionalak dira. Berebiziko garrantzia dute elektrikan (energia metatzeko, potentzia egokitzeo, motorrak abiatzeo eta abar) eta elektronikan (maiztasun-iragazkietan, sintonizadoreetan, osziladoreetan, hainbat sentsoretan eta abar).

**es** condensador**fr** condensateur**en** capacitor

35

**kondentsadore doigarri** (4)**es** trimmer**fr** condensateur d'appoint**en** trimmer

36

**kondentsadore elektrolitiko** (4)

Bi elektrodoetako bat elektrolito batez osatua duen kondentsadorea, gehienetan polaritatea izaten duena; korronte elektrikoaren eraginez dielektriko-geruza bat agertzen da, anodoaren oxidazioz.

**es** condensador electrolítico**fr** condensateur électrolytique**en** electrolytic capacitor

37

**kondentsadore ez-polarizatu** (4)

Potentzial-diferentzia noranzko batean zein bestean jasan dezakeen kondentsadorea.

**es** condensador no polarizado**fr** condensateur non polarisé**en** non-polarized capacitor

38

**kondentsadore finko (4)**

Kapazitate finkoa duen kondentsadorea.

- es condensador fijo
- fr condensateur fixe
- en fixed capacitor

39

**kondentsadore polarizatu (4)**

Potentzial-diferentzia noranzko batean bakarrik jasan dezakeen kondentsadorea. Haren terminal bateko (anodoko) tentsioa ezin da negatiboa izan bestearik.

- es condensador polarizado
- fr condensateur polarisé
- en polar capacitor; polarised capacitor

40

**korrontea mugatzeko erresistentzia (4)**

Korrontearen fluxua gehienez ere balio jakin bateraino heltzen uzten duen erresistentzia.

- es resistencia limitadora de corriente
- fr résistance de limitation du courant
- en current-limiting resistor

41

**kristal piezoelektriko (4)**

- es cristal piezoeléctrico
- fr cristal piézoélectrique
- en piezoelectric crystal

**LDR erresistentzia**

Ik. fotorresistentzia

42

**metal oxidozko erresistentzia (4)**

- es resistencia de óxido metálico
- fr résistance à oxyde métallique
- en metal-oxide resistor

43

**metal-geruzazko erresistentzia (4)**

- es resistencia de película metálica
- fr résistance à couche métallique
- en metal-film resistor

44

**metal-xaflazko erresistentzia (4)**

- es resistencia de láminas metálicas
- fr résistance à feuilles métalliques
- en metal-foil resistor

45

**mikroetengailu (4)**

- es microinterruptor
- fr microinterrupteur
- en microswitch

**NTC termistore**

Ik. tenperatura-koefiziente negatiboko termistore

46

**osagai elektromagnetiko (4)**

- es componente electromagnético
- fr composant électromagnétique
- en electromagnetic component

47

**osagai pasibo (4)**

Tentsiorik edo korronte-irabazirik ematen ez duen osagaia.

- es componente pasivo
- fr composant passif
- en passive component

48

**paperezko kondentsadore (4)**

- es condensador de papel
- fr condensateur au papier
- en paper capacitor

49

**potentziometro (4)**

Erresistentziaren balioa alda dakiokkeen osagaia.

**es** potenciómetro

**fr** potentiomètre

**en** potentiometer

50

**potentziometro harilkatu (4)**

**es** potenciómetro bobinado

**fr** potentiomètre bobiné

**en** wire-wound potentiometer

**PTC termistore**

Ik. temperatura-koefiziente positiboko termistore

51

**tantalozko kondentsadore (4)**

**es** condensador de tántalo

**fr** condensateur au tantale

**en** tantalum capacitor

52

**temperatura detektatzeko erresistentzia (4)**

**es** detector de temperatura resistivo

**fr** détecteur de température à résistance

**en** resistance temperature detector; RTD

53

**temperatura-koefiziente negatiboko termistore (4)**

Sin. NTC termistore (4)

**es** termistor de coeficiente de temperatura negativo; termistor NTC

**fr** thermistance à coefficient de température négatif; thermistance CTN

**en** negative temperature coefficient thermistor; NTC thermistor

54

**temperatura-koefiziente positiboko termistore (4)**

Sin. PTC termistore (4)

**es** termistor de coeficiente de temperatura positivo; termistor PTC

**fr** thermistance à coefficient de température positif; thermistance CTP

**en** positive temperature coefficient thermistor; PTC thermistor

55

**tentsioaren araberako erresistentzia (4)**

Sin. VDR (4); baristore (4)

Aplikaturako tentsioaren arabera erresistentzia aldatzen duen osagaia.

**es** resistencia dependiente de la tensión; varistor; VDR

**fr** varistance; varistor; VDR

**en** voltage-dependent resistor; varistor; VDR

56

**termistore (4)**

Erresistentzia elektrikoaren balioa temperaturaren arabera aldatzen duen erresistentzia.

**es** termistor; termistancia

**fr** thermistance

**en** thermistor

57

**transformadore (4)**

Indukzio elektromagnetikoa erabiliz eta potentzia eta maiztasuna mantenduz tentsioa igotzeko edo jaisteko erabiltzen den osagaia.

**es** transformador

**fr** transformateur

**en** transformer

**VDR**

Ik. tentsioaren araberako erresistentzia

58

**zeramikazko**

**kondentsadore (4)**

- es condensador cerámico
- fr condensateur céramique
- en ceramic capacitor

**2.2. Osagai aktiboak**

**argiz aktibatutako tiristore**

Ik. fototiristore

**balbula elektroniko**

Ik. hodi elektroniko

**BJT transistore**

Ik. juntura-transistore bipolar

59

**diac (4)**

Korrontea bi noranzkoetan eroan dezakeen osagai erdieroalea, bi diodoz osatua. Tentsio-maila jakin bat gainditzen denean gertatzen da eroapena.

- es diac
- fr diac
- en diac; bidirectional diode thyristor

60

**diodo (4)**

Anodo bat eta katodo bat dituen osagai elektronikoa, gehienetan material erdieroalezkoa; korronte elektrikoa noranzko bakar batean baino ez du uzten pasatzen.

- es diodo
- fr diode
- en diode

61

**diodo argi-igortle (4)**

Sin. LED diodo (4)

Korronte-tentsio txikia aplikatzen zaionean argia igortzen duen diodoa. Adibidez, etxetresna elektrikoetan erabiltzen dira, letra eta zenbaki digitalak adierazteko.

- es diodo electroluminiscente; diodo emisor de luz; diodo LED
- fr diode électroluminescente
- en light-emitting diode; LED diode

62

**diodo artezle (4)**

Korronte alternoa korronte zuzen bihurtzen duen diodoa. Zuzeneko polarizazioan etengailu itxi gisa funtzionatzen du; alderantzizko polarizazioan, berriz, etengailu ireki gisa.

- es diodo rectificador
- fr diode de redressement
- en rectifier diode

63

**eguzki-zelula (4)**

Eguzki-argia energia elektriko bihurtzen duen osagaia.

- es célula solar
- fr cellule solaire
- en solar cell

64

**erdieroale (4)**

Gai isolatzaileen eta gai eroaleen arteko ezaugarri elektrikoak dituen materiala. Erdieroaleak isolatzaileak dira eroankortasuna kontuan hartuz gero, baina ezaugarriak alda ditzakete ezartzen zaizkien hainbat baldintzaren arabera. Ezagunenak silizioa eta germanioa dira.

**es** semiconductor**fr** semi-conducteur**en** semiconductor

65

**erdieroale estrintseko (4)**

Eroankortasun elektrikoa handitzeko ezpurutasunen bat gehituta duen erdieroalea. Ezpurutasun hori izan daiteke fosforoa, antimonioa, artsenikoa, boroa, galioa edo indioa, besteak beste.

**es** semiconductor extrínseco**fr** semi-conducteur extrinsèque**en** extrinsic semiconductor

66

**erdieroale intrintseko (4)**

Elementu bakar eta hutsez eratutako erdieroalea; adibidez, germanio edo silizio hutsez osatutakoa.

**es** semiconductor intrínseco**fr** semi-conducteur intrinsèque**en** intrinsic semiconductor

67

**erdieroale konposatu (4)**

Taula periodikoko talde desberdinetako bi elementuz edo gehiagoz osaturiko konposatu erdieroalea.

Garrantzitsuenak, egun, AsGa (bi elementuz osatua), InGaAs (hiru) eta AlInGaP (lau) dira; banda-zuzenekoak direnez, argia silizioak baino efizientzia askoz handiagoz igortzen dute, eta optoelektronikan eta LED eta laser diodoetan ezinbestekoak dira.

**es** semiconductor compuesto**fr** semi-conducteur composé**en** compound semiconductor

68

**eremu-efektuko juntura-transistore (4)**

Sin. JFET transistore (4)

Atea eta kanala PN juntura bat eratuz elkartuta dituen FET transistorea.

**es** transistor de efecto de campo de unión; transistor JFET**fr** transistor à effet de champ à jonction; TEC à jonction**en** junction field effect transistor; JFET transistor

69

**eremu-efektuko transistore (4)**

Sin. FET transistore (4)

Ateko tentsioaren arabera kontrolatua dagoen etengailu gisa funtzionatzen duen gailua. Hiru terminal dauzka: hornitzailea, drainatzailea eta atea.

Atean aplikatutako tentsioak zehaztuko du hornitzailearen eta drainatzailearen arteko bide edo kanaletik korrontea igaroko den ala ez.

**es** transistor de efecto de campo; transistor FET**fr** transistor à effet de champ; transistor TEC**en** field-effect transistor; FET transistor

**FET transistore**

Ik. eremu-efektuko transistore

70

**photodiode (4)**

Argi-izpiak jasoz gero korronte elektrikoa bideratzeko aukera ematen duen diodo erdieroalea.

es fotodiode

fr photodiode

en photodiode

**fotopila**

Ik. zelula fotovoltaiko

71

**phototristore (4)**

Sin. argiz aktibatutako tristore (4); LASCR (3)

Argi-izpien eraginez aktibatzen den tristorea. Leiho garden txiki batetik pasatutako argiak, efektu fotovoltaikoaren bidez, atea kitzikatu eta tristorea eroale bilakatzen du.

es fototristor; tristor activado por luz; LASCR

fr photothyristor; thyristor photosensible

en photothyristor; light activated SCR; LASCR

72

**phototransistor (4)**

es fototransistor

fr phototransistor

en phototransistor

73

**phototriac (4)**

es fototriac

fr phototriac

en phototriac

**fotozelula**

Ik. zelula fotoelektriko

74

**gaintentsioa kentzeko diodo (4)**

es diodo supresor

fr diode écrêteuse; diode suppresseuse de surtension

en suppressor diode; transient voltage suppressor diode

75

**germaniozko diodo (4)**

es diodo de germanio

fr diode au germanium

en germanium diode

**GTO**

Ik. tristore blokeagarri

76

**hiru geruzako diodo (4)**

es diodo de tres capas

fr diode à trois couches

en three-layer diode

77

**hodi elektronikoa (4)**

Sin. balbula elektronikoa (3)

es tubo electrónico; válvula electrónica

fr tube électronique

en electronic tube; electronic valve

78

**IGBT transistore (4)**

Isolaturiko atea duen BJT transistorea.

es transistor IGBT

fr transistor IGBT

en IGBT transistor

79

**IGFET transistore (4)**

Isolaturiko atea duen FET transistorea.

es transistor IGFET

fr transistor IGFET

en IGFET transistor

80

**itzulbideko tiristore eroale (4)**

- es** tiristor conductor en inversa  
**fr** thyristor passant en inverse  
**en** reverse-conducting thyristor

81

**izpi katodikodun hodi (4)**

Sin. katodo-izpidun hodi (4)

- es** tubo de rayos catódicos  
**fr** tube à rayons cathodiques  
**en** cathode-ray tube

**JFET transistore**

Ik. eremu-efektuko juntura-transistore

82

**juntura bakarrekotransistore (4)**

Sin. UJT (4)

- es** transistor uniunión; UJT  
**fr** transistor unijonction; TUJ  
**en** unijunction transistor; UJT

83

**juntura bakarrekotransistore programagarri (4)**

Sin. PUT (4)

- es** transistor uniunión programable; PUT  
**fr** transistor unijonction programmable; TUP  
**en** programmable unijunction transistor; PUT

84

**juntura-diodo (4)**

Erdieroaleen junturaz edo metal eta erdieroale junturaz osatutako diodoa; adibidez, PN junturaz eratutako diodoa.

- es** diodo de unión  
**fr** diode à jonction  
**en** junction diode

85

**juntura-transistore (4)**

- es** transistor de unión  
**fr** transistor à jonction  
**en** junction transistor

86

**juntura-transistore bipolar (4)**

Sin. transistore bipolar (4); BJT transistore (4)

Hiru geruza erdieroale (PNP edo NPN) eta, beraz, bi PN juntura dituen transistorea. Ertzean dagoen geruzetako batek (igorleak) eramaileak igortzen ditu, beste ertzean dagoenak (kolektoreak) eramaile horiek jasotzen ditu, eta tartekoak (baseak), berriz, batetik bestera igarotzen den eramailekopurua kontrolatzen du.

- es** transistor bipolar de unión; transistor bipolar  
**fr** transistor bipolaire à jonctions; transistor bipolaire  
**en** bipolar junction transistor; bipolar transistor; BJT

87

**kapazitate aldagarriko diodo (4)**

Sin. varicap diodo (4); varactor (4)

- es** diodo de capacidad variable; diodo varicap; varactor  
**fr** diode à capacitance variable; diode varicap; varactor  
**en** variable-capacitance diode; varicap diode; varactor

**katodo-izpidun hodi**

Ik. izpi katodikodun hodi

88

**kommutazio-diodo (4)**

- es** diodo de conmutación  
**fr** diode de commutation  
**en** switching diode

**LASCER**

Ik. fototiristore

89

**laser-diodo (4)**

es diodo láser  
fr diode laser  
en laser diode

90

**lau geruzako diodo (4)**

es diodo de cuatro capas  
fr diode à quatre couches  
en four-layer diode

**LED diodo**

Ik. diodo argi-igorle

91

**MESFET transistore (4)**

es transistor MESFET  
fr transistor MESFET  
en MESFET transistor

92

**metal oxidozko erdieoroale (4)**

Sin. MOS (4)

Metalezko, oxidozko eta erdieoroalezko geruza bana bata bestearen gainean ezarritu zirkuitu integratuak fabrikatzeko erabiltzen den egitura. Hiru geruza horiek aluminiozkoa, silizezkoa eta siliziozkoa izan daitezke, hurrenez hurren.

es metal óxido semiconductor;  
MOS  
fr semi-conducteur d'oxyde de métal; MOS  
en metal oxide semiconductor;  
MOS

**MOS**

Ik. metal oxidozko erdieoroale

93

**MOSFET transistore (4)**

MOS egitura duen FET transistorea. IGFET transistorerik ohikoena da.

es transistor MOSFET  
fr transistor MOSFET  
en MOSFET transistor

94

**N ateko tiristore (4)**

es tiristor N  
fr thyristor N  
en N-gate thyristor

95

**N motako erdieoroale (4)**

Eramaile positibo (hutsune) baino eramaile negatibo (elektroi aske) gehiago dituen erdieoroale estrintsekoa. Eramaile ugarienak (eramaile maioritarioak) elektroiak dira.  
es semiconductor tipo N  
fr semi-conducteur de type N  
en N-type semiconductor

96

**NMOS transistore (4)**

es transistor NMOS  
fr transistor NMOS  
en NMOS transistor

97

**noranzko biko transistore (4)**

es transistor bidireccional  
fr transistor bilatéral  
en bidirectional transistor

98

**NPN transistore (4)**

es transistor NPN  
fr transistor NPN  
en NPN transistor

99

**osagai aktibo (4)**

Tentsioa edo korrante-irabazia emateko gai den osagaia; seinaleak sortzeko, amplifikatzeko edo eraldatzeko gaitasuna du. Adibidez, transistorea edo tiristorea.

es componente activo  
fr composant actif  
en active component



100

**osagai diskretu (4)**

Zirkuitu edo multzo batean, banaka eta bereiz ezartzen den elementua. Osagai integratuak ez bezala, elementu hori multzotik askatzeko aukera dago.

**es** componente discreto

**fr** composant discret

**en** discrete component

101

**osagai elektronikoko (4)**

**es** componente electrónico

**fr** composant électronique

**en** electronic component

102

**P ateko tiristore (4)**

**es** tiristor P

**fr** thyristor P

**en** P-gate thyristor

103

**P motako erdieroale (4)**

Eramaile negatibo (elektroi aske) baino eramaile positibo (hutsune) gehiago dituen erdieroale estrintsekoa. Eramaile ugariak (eramaile maioritarioak) hutsuneak dira.

**es** semiconductor tipo P

**fr** semi-conducteur de type P

**en** P-type semiconductor

104

**PIN diodo (4)**

**es** diodo PIN

**fr** diode PIN

**en** PIN diode

105

**PIN fotodiodo (4)**

**es** fotodiodo PIN

**fr** photodiode PIN

**en** PIN photodiode

106

**PMOS transistore (4)**

**es** transistor PMOS

**fr** transistor PMOS

**en** PMOS transistor

107

**PN juntura (4)**

Erdieroale-lagin batean, P motako eskualde bat eta N motako eskualde bat elkartzen diren gunea.

**es** unión PN

**fr** jonction PN

**en** PN junction

108

**PNP transistore (4)**

**es** transistor PNP

**fr** transistor PNP

**en** PNP transistor

109

**potentzia-diodo (4)**

**es** diodo de potencia

**fr** diode de puissance

**en** power diode

110

**potentzia-transistore (4)**

**es** transistor de potencia

**fr** transistor de puissance

**en** power transistor

**PUT**

Ik. juntura bakarreko transistore programagarri

**SBS**

Ik. siliziozko aldebiko kommutadore

111

**Schottky diodo (4)**

**es** diodo Schottky

**fr** diode Schottky

**en** Schottky diode

**SCS**

Ik. siliziozko kommutadore kontrolatu

112

**Shockley diodo (4)**

Lau geruza (PNPN) dituen diodoa, noranzko bakarrekoa. Kommutazio lasterreko zirkuituetan erabiltzen da.

**es** diodo Shockley  
**fr** diode Shockley  
**en** Shockley diode

113

**siliziozko aldebakarreko kommutadore (4)**

Sin. SUS (4)

**es** conmutador unilateral de silicio; SUS  
**fr** interrupteur unilatéral au silicium; SUS  
**en** silicon unilateral switch; SUS

114

**siliziozko aldebiko kommutadore (4)**

Sin. SBS (4)

**es** conmutador bilateral de silicio; SBS  
**fr** interrupteur bilatéral au silicium; SBS  
**en** silicon bilateral switch; SBS

115

**siliziozko diodo (4)**

**es** diodo de silicio  
**fr** diode au silicium  
**en** silicon diode

116

**siliziozko kommutadore kontrolatu (4)**

Sin. SCS (4)

**es** conmutador controlado de silicio; SCS  
**fr** commutateur commandé au silicium; SCS  
**en** silicon controlled switch; SCS

117

**supereroale (4)**

Temperatura oso baxuetan eta eremu magnetiko ahuletan erresistentzia elektrikorik ez duen substantzia.

**es** superconductor  
**fr** supraconducteur  
**en** superconductor

SUS

Ik. siliziozko aldebakarreko kommutadore

118

**tetrodo-tiristore (4)**

**es** tiristor tetrodo  
**fr** thyristor tétrode  
**en** tetrode thyristor

119

**tiratroi (4)**

Gas geldoz edo merkurio-lurrunez betetako balbula termoionikoa, errele gisa funtzionatzen duena eta, oro har, triodoa izaten dena.

**es** tiratrón  
**fr** thyatron  
**en** thyatron

120

**tiristore (4)**

Lau geruza (PNPN) eta, beraz, hiru PN juntura dituen gailu erdieroalea; hiru terminal ditu (anodoa, katodoa eta kontrolerako atea), eta bi egoera egonkor (eroapena eta etendura). Etengailu gisa erabiltzen da.

**es** tiristor  
**fr** thyristor  
**en** thyristor

121

**tiristore blokeagarri (4)**

Sin. GTO (4)

**es** tiristor bloqueable; GTO  
**fr** thyristor blocable par la gâchette  
**en** gate turn-off thyristor; GTO

122

**transistore (4)**

Gailu elektronikoen erdieroalea. Hiru terminal edo ate dauzka, eta horietariko batean aplikatutako tentsioak zehaztuko du beste bien artean korrontea igaroko den ala ez.

**es** transistor**fr** transistor**en** transistor

123

**transistore bertikal (4)****es** transistor vertical**fr** transistor vertical**en** vertical transistor**transistore bipolar**

Ik. juntura-transistore bipolar

124

**triac (4)**

Korronte alternoaren bi ziklo-erdietan, positiboan nahiz negatiboan, korrontea eroaten duen tiristorea; beraz, bi noranzkoetan egiten du lan.

**es** triac**fr** triac**en** triac

125

**triode (4)****es** triode**fr** triode**en** triode**UJT**

Ik. juntura bakarrekotako transistore

**varactor**

Ik. kapazitate aldagarriko diodo

**varicap diodo**

Ik. kapazitate aldagarriko diodo

126

**zelula fotoelektriko (4)**

Sin. fotozelula (4)

Hartzen duen argi-seinalea seinale elektriko bihurtzen duen detektagailua.

**es** célula fotoeléctrica; fotocélula**fr** cellule photoélectrique**en** photocell; photoelectric cell

127

**zelula fotovoltaiako (4)**

Sin. fotopila (4)

Efektu fotovoltaiakoaren bitartez indar elektroeragilea sortzen duen fotozelula; hau da, argia energia elektriko bihurtzen du.

**es** célula fotovoltaica; fotopila**fr** cellule photovoltaïque; photopile**en** photovoltaic cell

128

**Zener diodo (4)**

Tentsioaren gorabeherak xurgatuz egonkortasuna bermatzen duen diodoa. Alderantziko potentzial-diferentzia balio jakin batera iritsi arte, artezgailu gisa jokatzen du; balio horretatik gora (haustura-tentsioa aplikatzen denean), korronte altuak eroan ditzake.

**es** diodo Zener**fr** diode Zener**en** Zener diod

## 2.3. Erregulazioa eta transduktoreak

129

**bozgorailu elektrostático (4)**

- es** altavoz capacitivo; altavoz  
electrostático  
**fr** haut-parleur électrostatique  
**en** capacitor loudspeaker;  
electrostatic loudspeaker

130

**chopper (4)**

- es** chopper  
**fr** hacheur  
**en** chopper

131

**Hall efektuko sentsore (4)**

- es** sensor de efecto Hall  
**fr** capteur à effet Hall  
**en** Hall effect sensor

132

**hari gabeko mikrofono (4)**

- es** micrófono inalámbrico  
**fr** microphone sans fil  
**en** wireless microphone

**haril higikorreko mikrofono**

Ik. mikrofono dinamiko

133

**hedagailu (4)**

Irteerako tarte dinamikoa sarrerakoa baino zabalagoa egiten duen gailua.

- es** expansor  
**fr** expandeur  
**en** expander

134

**kondentsadore-mikrofono (4)**

Sin. mikrofono elektrostático (4)

- es** micrófono de condensador;  
micrófono electrostático  
**fr** microphone électrostatique  
**en** condenser microphone;  
electrostatic microphone

135

**konpresore (4)**

- Irteerako tarte dinamikoa sarrerakoa baino murriztagoa egiten duen gailua.  
**es** compresor  
**fr** compresseur  
**en** compressor

136

**kontrolagailu (4)**

- es** controlador  
**fr** régulateur  
**en** controller

137

**kontrolagailu proporzional (4)**

- Irteerako seinalea eta erroreko seinalea proporzionalak dituen kontrolagailua.  
**es** controlador proporcional  
**fr** régulateur proportionnel  
**en** proportional controller

138

**kontrolagailu proporzional diferentzial (4)**

- es** controlador proporcional diferencial  
**fr** régulateur proportionnel et par dérivation  
**en** proportional-plus-derivative controller

139

**kontrolagailu proporzional integral (4)**

- es** controlador proporcional integral  
**fr** régulateur proportionnel et intégral  
**en** proportional-plus-integral controller

140

**kontrolagailu proportzional integral diferentzial (4)**

Sin. PID kontrolagailu (4)

- es** controlador proporcional integral diferencial; controlador PID  
**fr** régulateur proportionnel intégral dérivé; régulateur PID  
**en** proportional-integral-derivative controller; PID controller

141

**mikrofono dinamiko (4)**

Sin. haril higikorreko mikrofono (4)

- es** micrófono dinámico; micrófono de bobina móvil  
**fr** microphone dynamique; microphone à bobine mobile  
**en** dynamic microphone; moving-coil microphone

**mikrofono elektrostatiko**

Ik. kondentsadore-mikrofono

142

**on/off kontrolagailu (4)**

Seinalea osorik pasatzen uzten duen edo seinalea osorik eteten duen kontrolagailua.

- es** controlador on-off  
**fr** régulateur à action par tout ou rien  
**en** on-off controller

143

**osagai optoelektroniko (4)**

Seinale optikoen eta elektrikoen arteko transduktore gisa funtzionatzen duen osagaia.

- es** componente optoelectrónico  
**fr** composant optoélectronique  
**en** optoelectronic component

**pare termoelektriko**

Ik. termopare

**PID kontrolagailu**

Ik. kontrolagailu proportzional integral diferentzial

144

**sentsore (4)**

- es** sensor  
**fr** capteur  
**en** sensor

145

**tentsio-erregulagailu (4)**

Irteeran tentsio konstantea eskaintzeko funtzioa duen gailua. Korrante zuzeneko elikatze-iturri erregulatuetan ezarri ohi da.

- es** regulador de tensión  
**fr** régulateur de tension  
**en** voltage regulator

146

**termopare (4)**

Sin. pare termoelektriko (4)

Tenperaturaren eraginez bi metalen arteko ukipen-puntuan sortzen den tentsio-diferentzia erabiltzen duen transduktorea.

- es** termopar; par termoeléctrico  
**fr** thermocouple; couple thermoélectrique  
**en** thermocouple

147

**transduktore (4)**

Magnitude fisikoak seinale elektriko bihurtzeko (edo alderantziz) erabiltzen den gailua.

- es** transductor  
**fr** transducteur  
**en** transducer

148

**transduktore aktibo (4)**

Neurtzen duen fenomenoaren energiaren parte bat erabili eta energia elektriko bihurtzen duen transduktorea. Hau da, detektatu behar den magnitude fisikoak seinale elektrikoak sortzeko behar den energia ematen du, eta transduktoreak ez du kanpoko energia-hornidurarik behar.

es transductor activo

fr transducteur actif

en active transducer

149

**transduktore elektroakustiko (4)**

Seinale elektrikoak uhin akustiko (edo alderantziz) bihurtzeko transduktorea.

es transductor electroacústico

fr transducteur électroacoustique

en electroacoustic transducer

150

**transduktore elektromagnetiko (4)**

es transductor electromagnético

fr transducteur électromagnétique

en electromagnetic transducer

151

**transduktore elektromekaniko (4)**

es transductor electromecánico

fr transducteur électromécanique

en electromechanical transducer

152

**transduktore erresistibo (4)**

es transductor resistivo

fr transducteur résistif

en resistive transducer

153

**transduktore fotovoltaiko (4)**

Argi-energia energia elektriko bihurtzen duen transduktorea.

es transductor fotovoltaico

fr transducteur photovoltaïque

en photovoltaic transducer

154

**transduktore induktibo (4)**

es transductor inductivo

fr transducteur inductif

en inductive transducer

155

**transduktore kapazitibo (4)**

es transductor capacitivo

fr transducteur capacitif

en capacitance transducer

156

**transduktore pasibo (4)**

Funtzionatzeko kanpoko energia-hornidura behar duen transduktorea.

es transductor pasivo

fr transducteur passif

en passive transducer

157

**transduktore piezoelektriko (4)**

Hainbat materialen ezaugarri piezoelektrikoak erabiltzen duen transduktorea. Material horien gainazalak elektrizitatez kargatzen dira eragin mekanikoaren ondorioz.

es transductor piezoeléctrico

fr transducteur piézoélectrique

en piezoelectric transducer

158

**transduktore****termoelektriko (4)**

Tenperaturaren araberrako seinale elektrikoaren ematen duen sentsorea edo seinale elektriko bat tenperatura-aldaketa bilakatzen duen eragilea.

Tenperatura detektatzeko erresistentziak, termistoreak edo termopareak izan ohi dira sentsoreak. Eragileak, berriz, Peltier zelulak.

**es** transductor termoeléctrico  
**fr** transducteur thermoélectrique  
**en** thermoelectric transducer

**2.4. Zirkuituak**

159

**A klaseko amplifikadore (4)**

**es** amplificador clase A  
**fr** amplificateur classe A  
**en** class-A amplifier

160

**AB klaseko amplifikadore (4)**

**es** amplificador clase AB  
**fr** amplificateur classe AB  
**en** class-AB amplifier

161

**amplifikadore (4)**

Sarrerako seinalea era kontrolatuan amplifikatzen duen zirkuitua.

**es** amplificador  
**fr** amplificateur  
**en** amplifier

162

**amplifikadore diferentzial (4)**

Irteerako seinalea sarrerako bi tentsioen arteko aldearekiko proportzionala ematen duen amplifikadorea.

**es** amplificador diferencial  
**fr** amplificateur différentiel  
**en** differential amplifier

163

**amplifikadore ez-inbertsore (4)**

Irteerako seinalea amplifikatua eta fasean sortzen duen amplifikadorea. Hau da, ez du seinalearen polaritatea aldatzen.

**es** amplificador no inversor  
**fr** amplificateur non inverseur  
**en** non-inverting amplifier

164

**amplifikadore lineal (4)**

**es** amplificador lineal  
**fr** amplificateur linéaire  
**en** linear amplifier

165

**amplifikadore operazional (4)**

Irabazi handiko amplifikadore diferentziala. Kanpo-elementuekin konektatuta, hainbat funtziotarako (arzteko, iragazteko, amplifikatzeko eta abar) erabiltzen den zirkuitu integratua da.

**es** amplificador operacional  
**fr** amplificateur opérationnel  
**en** operational amplifier

166

**anplifikadore parametrik** (4)

**es** amplificador paramétrico  
**fr** amplificateur paramétrique  
**en** parametric amplifier

167

**anplifikadore transistoredun**

(4)

**es** amplificador de transistores  
**fr** amplificateur à transistors  
**en** transistor amplifier

168

**anplifikadore-inbertsore** (4)

Irteerako seinalea amplifikatua eta inbertitua sortzen duen amplifikadorea. Hau da, irteerako seinalea 180° desfasatua dago sarrerakoarekiko.

**es** amplificador inversor  
**fr** amplificateur inverseur  
**en** inverting amplifier

169

**artezgailu** (4)

Zirkuitu elektronikoko batean korrante alternoa korrante zuzen bihurtzen duen gailua, diodo artezlez osatua.

**es** rectificador  
**fr** redresseur  
**en** rectifier

170

**artezgailu kontrolatu** (4)

Diodo artezle kontrolatu gisa funtzionatzen duen artezgailua, korrantea noranzko bakarrean pasatzen uzten duena. Hiru terminal dauzka: anodoa, katodoa eta atea. Atean tentsioa aplikatzen ez den bitartean ez du korrantea pasatzen uzten.

**es** rectificador controlado  
**fr** redresseur contrôlé  
**en** controlled rectifier

171

**artezgailu-iragazki** (4)

**es** filtro de rectificador  
**fr** filtre de redresseur  
**en** rectifier filter

172

**atenuadore** (4)

Seinale baten amplitudea murrizten duen gailua.

**es** atenuador  
**fr** atténuateur  
**en** attenuator

173

**atzerapen-linea** (4)

**es** línea de retardo  
**fr** ligne à retard  
**en** delay line

174

**aurreanplifikadore** (4)

Seinale bat amplifikatzeko prozesuan egiten den lehenengo urratsean funtzionatzen duen amplifikadorea, sentsoretik edo antenatik oso hurbil jartzen dena. Zarata eta interferentziak gutxitzeko asmoz jartzen da.

**es** preamplificador  
**fr** préamplificateur  
**en** preamplifier

175

**B klaseko amplifikadore** (4)

**es** amplificador clase B  
**fr** amplificateur classe B  
**en** class-B amplifier



176

**banda kentzeko iragazki (4)**

Seinale baten maiztasun-banda jakin bat bortizki murrizten duen iragazkia; gainerako maiztasunak ez ditu murrizten.

**es** filtro de corte de banda; filtro supresor de banda

**fr** filtre à élimination de bande; filtre coupe-bande

**en** band-stop filter; band-elimination filter

177

**banda-paseko iragazki (4)**

Seinale batean maiztasun-banda jakin bat izan ezik gainerako maiztasun bandak bortizki murrizten dituen iragazkia.

**es** filtro de paso de banda

**fr** filtre passe-bande

**en** band-pass filter

**batugailu**

Ik. zirkuitu batutzailer

178

**behe-paseko iragazki (4)**

Zehazten den maiztasun jakin baterik beherako maiztasuneko seinaleak pasatzen uzten dituen iragazkia.

**es** filtro de paso bajo

**fr** filtre passe-bas

**en** low-pass filter

179

**bihurgailu (4)**

**es** convertidor

**fr** convertisseur

**en** converter

180

**blokeo-osziladore (4)**

**es** oscilador de autobloqueo; oscilador de bloqueo

**fr** oscillateur à blocage

**en** blocking oscillation; squegging oscillator

181

**C klaseko anplifikadore (4)**

**es** amplificador clase C

**fr** amplificateur classe C

**en** class-C amplifier

182

**D klaseko anplifikadore (4)**

**es** amplificador clase D

**fr** amplificateur classe D

**en** class-D amplifier

183

**Darlington anplifikadore (4)**

